

FUNTSEZKO ELKARTEA

Gure proiektua sortu ahal izateko makina bat enpresen eta elkarten laguntza beharko dugu. Izan ere, ispilua sortu ahal izateko beharrezko materialak eskuratzea ezinbestekoa da; alegia, kalitate handiko lehengaiak. Noski, bertako produktuaren kontsumoaren alde gauden horretan, oro har, gure inguruko hornitzaileekin batera lan egingo dugu. Horrez gain, beste motatako enpresekin harremana mantentzea premiazkoa da, gure produktuaren erabilera eta hedapena areagotzearen.

Lehenik eta behin, Bello Tempo ispiluaren produkzioa aurrera eraman ahal izateko hainbat material eskuratu beharko ditugu. Hala nola, ispiluaren kanpoaldea egur zuriz egingo dugunez gero, Erkiza enpresa donostiarreko arotzen laguntza beharko dugu. Gainera, produktuaren ertzetan jarriko ditugun argiak Erreterian kokatuta dagoen Erka dendatik eskuratuko ditugu. Ildo beretik, ispiluaren funtzionamendu zuzena ahalbidetuko duten kableak Elektra enpresan erosiko ditugu. Azkenik, ispiluko atal garrantzitsuena den pantaila eraiki ahal izateko Xiaomi enpresa arrakastatsuekin batera lan egingo dugu.

Materiala prest dugunean, ispilua eraikitzeke garaia iritsi da. Hortaz, gu geu izango gara prozesu horren arduradunak. Jakina, piezak guk elkartuko ditugun arren, kalitatezko kontrola gainditzea behar-beharrezkoa da; hala, hori modu eraginkorrean egiteko gai diren profesionalak kontratatuko ditugu. Gainera, ispiluaren diseinua bai erakargarria bai elegantea izan behar denez gero, Marcel Wanders, aski ezaguna den barne-diseinatzaile famatuaren laguntzaz baliatuko gara.

Aliantzei dagokienez, luxuzko arropa enpresekin kolaborazioak egingo genituzke, horien artean Hugo Boss edota Armani enpresa handiak. Bestalde, bakoitzak bere etxean horrelako ispilu bat edukitzeko aukera izan dezan, Amazon online enpresan salgai jarriko ditugu, eta horrela, erosleei bere etxetara iritsiko litzaieke dendara joan behar izan gabe.

Hori gutxi balitz, gure webgune propioa sortuko dugu, non produktuaren inguruko xehetasunak zehazteaz gain, horren erosketaren nondik norakoa azalduko dugun. Alegia, Bello Tempo ispilua eskuratu ahal izateko Amazon bidez erosi beharko dela.